

PRENTSA-OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoak ART & MUSIC programaren 2024ko udazkenerako egitaraua aurkezten du

Art & Music zuzeneko musika-programaren barruan 2024ko udazkenean izango diren kontzertuak aurkeztu ditu Museoak. Programak abangoardiako proposamenak ekarriko ditu Atriora, Museoaren arkitekturaren eta erakusketen testuinguruan, Kutxabankek babestuta.

Rita Payések hasiera emango dio programari urriaren 26an, larunbatean; azaroaren 23an, larunbatean, **RY X**en txanda izango da, eta abenduaren 1ean, igandean, **Maro** abeslariak itxiko du zikloa.

Art & Music programak aukera ematen die kontzertuetara bertaraten direnei erakusketak lasai bisitatzeko, 20:30etik aurrera, emanaldiak 22:00etan hasi baino lehen. Gainera, Museoak Atrioan bertan edariekkin eta pintxoekin gaitzen duen taberna-zerbitzua erabiltzeko aukera ere badago (kontsumizioak ez dira sarreraren prezioan sartzen)

Sarrerak 27,5 euro balio du Museoaren Lagunentzat eta 30,8 euro gainontzekoentzat. Sarrerak Museoaren webguneko jardueren atalean erreserbatzen dira: <https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/jarduerak>

Art & Music zikloak jarraipena izango du 2025eko udaberrian. Kontzertu berriak izango dira Atrioan, eta Museoak laster emango du haien berri.

Musika-programatzailea: Last Tour.

Rita Payés (urriak 26)

Rita Payés, musikarien alaba, Sant Andreu Jazz Bandeko talentu emergenteetako bat da. Bertatik ateratakoak dira jazz eszenako etorkizun handiko musikari gazte batzuk, tartean Andrea Motis, Èlia Bastida eta Magalí Datzira. 2021ean kaleratu zuen Peyésen lehen bakarkako lana, "Como la piel", eta horri esker nazioarteko proiektzioa lortu zuen. Lan horretan jazz boleroarekin, bossa novarekin, musika klasikoarekin eta herrikoiarekin uztartu zuen. Bere abestien artean, esaterako "Algo contigo" delakoak 52M erreproduktzio izan ditu Spotifyn, eta "Nunca vas a comprender" izenekoak 7 M inguru YouTuben, hilean 1,3M entzule baino gehiagorekin.

Bere hirugarren albuma, "De Camino al Camino", egunerokotasunean edertasunean murgiltzen da eta gure sustraiekin bat egiten du. Album honek hainbat estilo eta eragin uztartzen ditu gai bateratzaile batekin: bidea. Proposamen artistiko sendoa oinarrituta eta talentu ezagunen

laguntzarekin emozioak, maisutasuna eta sustraiekiko lotura bikaintasunez uztartzen dituen bidaia musikal horretara elkartzera gonbidatzen du publikoa.

RY X (azaroak 23)

RY X, GRAMMY sarietara izendatutako abeslaria, konpositorea eta ekoizlea da. Etengabe dabil konexioaren bila. Konexioa naturarekin, espirituarekin, eta giza-esperientziarekin. Hala, espresioa eta zaurgarritasuna daude bere lanaren muinean eta artista gisa aditzera ematen duen horretan. Mundu osoan zehar egin ditu birak eta planetako leku ikonikoenetako batzuetan eman ditu kontzertuak. Besteak beste, LA Philharmonic eta London Philharmonic orkestrekin kolaboratu du eta, horrez gain, hainbat artistarentzat ekoitzi eta idatzi du: Drake, EreO, Black Coffee eta John Legend artistentzat, esaterako.

Mila milioi erreproduzio baino gehiago ditu streaming plataformetan, eta platinozko eta urrezko hainbat disko lortu dituzte bere grabazioek. Bestetik, Bakearen Nobel Sariaren ekitaldian eta Notre Dame bezalako lekuetan aritzera gonbidatu izan dute. Bere lana multifazetikoa da, erabat emozionala, eta azken batean gizaki izateak esan nahi duena islatzea du helburutzat; izakiak dituen esperientzia somatiko eta emozionalen sorta zabala barnean hartuz. RY X-k bihotza lehen planoan duela lantzen ditu adierazpide artistiko guztiak.

Maro (abendua 1)

Mariana Secca artista portugaldarraren izen profesionala da Maro. Lau urte zituela hasi zituen piano klasikoko ikasketak. Bere lehen abestia 11 urterekin idatzi zuen eta 12 urterekin gitarra jotzen ikasi zuen bere kasa. 20 urte zituela, eskaera aurkeztu eta Bostongo Berklee College of Music-en onartu zuten. Han, beste artista batzuekin harremanetan jarri zen, tartean Jacob Collierrekin, eta *Djessa*, *Vol 2* diskorako kolaboratu zuen berarekin.

2018an hainbat proiektu kaleratu zituen: bere izenarekin kaleratu zuen 22 pistako bere debut-lana hiru albumetan; *MARO & Manel* albuma Manuel Rocharekin, eta *It's OK*, bederatzi folk abesti elektroakustikoren bilduma solista gisa, ingelesez, Quincy Jones ekoizle mitikoarekin management kontratu bat sinatu ondoren. MAROk, Jacob Collierrekin batera, European, Ipar eta Hego Amerikan, Asian eta Australian biran igaro zuen 2019a, eta 2023an *Hortelã* kaleratu zuen, Sonyk banatutako bere lehen albuma. Gainera, urte berean Sílvia Pérez Cruz eta Rita Payésekin kolaboratu zuen *Estrelas e Raiz* abestian.